OSASUNA ETA GAIXOTASUNA PASAI SAN PEDRON

GEMA CES ALKORTA

SARRERA GISA

Aspaldiko Pasaia leku baketsu eta osasuntsutzat zuen historigileak. "... los que no mueren en las guerras y en el mar viven muchos años"[1]. Esaldi hau garaiko pentsamol dearen adierazgarri bezela harturik, ondorioztatu genezake gaixotasunaren kontzeptua zerbait marginala balitz bezela ulertzen zela, eguneroko errealitatean parte hartu gabe, garai hartako bizitzatik at zegoena, alde batera utzita, jakina, Pasaiak jaso zituen izurriteak, hain gogor eraso eta hainbeste jendek bizitza galdutakoak.

Guduak, izurriteak eta halakoak desagertu orduko, ordea, badirudi, gizabanakoak gaixotasuna aurkitzen duela, gaixotasunarekin topo egiten duela, eta honek, gero eta leku gehiago betetzen duela bere bizitzan.

Beraz, gaixotasunaren kontzeptua, gizartearen eboluzioarekin batera azaltzen dela dirudi eta ondorioz, gizartea zenbat eta aurreratuagoa izan, hainbat eta gaixotasun gehiago dagoela.

Hala dela frogatzeko, konparatu besterik ez dugu gaur egun ezagutzen diren gaixotasunak eta lehen ezagutzen zirenak. Norbaitek esan lezake lehengo gaixotasunak eta gaurkoak berberak direla eta ezberdintasuna ez ezagutzean datzala. Nolanahi ere, egon hor dago: gizarte modernoak, gaixotasun "modernoak" dakartza, errealitatera jo, besterik ez dugu.

Antropologia hitzak duen esanahian oinarriturik eta "Osasuna eta Gaixotasuna" gaitzat hartuaz, haretxen jiran gure bailarako herri konkretu batean, Pasai San

1.- Isasti Lope de. *Compendio Historial de la Muy Noble y Leal Provincia de Guipúzcoa*. San Sebastián. 1890. 495 orr.

Pedron, daudekeen sinismen, ikusmolde, sendabide, eta abarren isladatxoa, izan nahi luke honako honek.

Islada edo adierazle izan nahi duela esatean, gaixotasunaren aurrean garai bateko gizartearen eta gurearen artean dagoen pentsamolde eta jarrera aldaketa, giza baloreek eta zenbait kontzeptuk izan duten bilakaera dugu gogoan.

Dena den, gure asmoa ez da izan inongo azterketarik egitea honi buruz, herri jakin batean, Pasai San Pedron alegia, arlo honetan, ibiltzen zituzten gorabeherak azalarazi, hura dena jaso eta datu horiez aportazio bat egitea baizik.

Metodologia mailan, Jose Migel Barandiaranek proposatutako "Enfermedades y Medicinas"[2] ataleko galdeketari jarraitu diogu oro har.

Bestetik egoki iruditu zaigu elkarrizketetako euskara bere honetan ematea, ahozkatzen den bezelaxe idazten saiatu garelarik. Transkribaketa ahal den neurrian ebakieraren ispilu izatea izan da gure asmoa. (Ahozkatzen ez den "H", ordea, hitz hasieretan erabiltzea erabaki dugu, ulermenaren lagungarri gerta daitekeelakoan.)

Informatzaileak:

Maria Luisa Gaztelumendi, 62 urte, Pasai San Pedrokoa.

Remedios Gaztelumendi, 64 urte, Pasai San Pedrokoa.

Antxoni Alkorta, 71 urte, Pasai San Pedrokoa.

2.- Barandiarán. J.M. Guía para una encuesta Etnográfica. *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de sección. Antropología-Etnografía*. 3. zenb. 245-249orr.

G. -Zein gaixotasun ezagutzen duzue?.

R. -*Garrotillua*, gero... *Txarranpiña*, *Kokotxa Estula*, *Escarlatina*, *Txarranpina* eta *Escarlatina* nastuak izaten balinba dira, oso txarrak dia. Hori pasatu zun izeba Mariak, oso gaizki egotia. Lenbizi katarro bat o bestia errexa pasatzen zan baiñon bestela, hola, oso txarra e?

M.L. -Nik hartu nun hori, oso makal eondu nitzan, gue amak esaten zigunez.

R. -Eta *Txarranpina*. da....

M.Luisak. - "Saranpion".

Remediosek. -Bai, bai baiña ateratzen zaizkitzu grano txe, txe, txe, txe, txeak dana e?, ta askuria ematen du horrek, baiño eskarlatina nastua balinba a ateratzen dia holako mutur ori ori oriyak *Txarranpinaren* tartian, ta oso txarra izaten da.

M.L. -Eta gero *Garrotillua* deitzen geniyona, "Difteria", erderaz "Difteria", ta guk *Garrotillua*, hori da bai.

G.-Beraz, horiek izango lirateke ezagutzen dituzuenak.

M.L. -Eta gero besteik zer tzan?

R. -"Tifus" kontuan berriz pues... aitakin ikusi genuen zer tzan...

M.L. -"Tifus" zan... bueno lenbizi errez pasatzekua zan... "kalenturas" deitzen zitzaion horri ta gero okerragua zan tifus. Hori gure aitak pasa zun eta aitak pasa ezkeo gero nik pasa nun bañon nik askoze ariñago e?

G. -Eta "Tifusa" nola hartzen zan?

R. -Ez daki... iñork nondik noa etortze an, iñork ez daki.

M.L. -Kalentura haundiya, hori izaten da infeziyo bat.

R. -Orain Eibarren azaldu dan bezala, iñork ez daki nondik etorri dan. Esaten dute balitekela ura izatia, o balitekela barazkiak jateatikan, iñork ez daki nondik etorri an, baña etorri dala zihur dago.

M.L. -Gu gogoatzen geana hemen "Tifus", guk ezagutu izan degu e? Torrian, Torreko etxi hartan oyak jarri zituzten, len ofizinak zian, leen portuko ofizinak eta hayek danak ze in atera eta oyak jarri zituzten ta eskoletan ebai. Hori juxtu, juxtu baiña goratzen gea.

M.L. (Remediosen alaba) Oyak zertako?

M.L. -Oi, etxetikan ateratzeko.

G. -Klaro "Tifus" kontagiosoa zan.

M.L. -Baaai

R. -"Tifus" zeukaten denak eramaten zituzten Torreko etxea eta han eukitzen zituzten etxeetatikan atera ta...

M.L. -(Remediosen alaba) Nongo Torreko etxea?

R. -Nola bizi ziran Egaña ta, etxe hura.

M.L. Arkupe bat nola zeon jeisteko...

R. -Etxe hortan eduki zituzten, zenbat... Jesus¡

M.L. (Remediosen alaba) Hospital bat bezelaxe.

M.L. -Bai, bai. Ta lengo eskolak ebai, jarri zituzten. Ta gu gooratzen ez geana, haundiyaguak, gure amak esaten zuana.

R. -Orduan bea ere eondu zan.

M.L. -*Baztanga*, *Baztanga Beltza* esaten ziotena.

R. -Izugarrizkua gañera. Hori harrapatzen zuana eta aurdun zeon emakumea zeuro hiltzeko.

G. -Eta hori zer zen infezio bat o?

M.L. -Bai, bai.

M.L. (Remediosen alaba) Baiño zein hiltzen zan ama o biyek.

R. -Biyek, biyek. Aurdun zeon andria hil itten zan ta haurra ere bai.

M.L. -Bueno, hori zan *Baztanga Beltza*, hau da "Viruela".

R. -"Viruela Loca" o...

M.L. -Bai, bai, bai.

G. -Erderaz esaten da hori ez?

M.L. -Bai, bai.

G. -Eta "Escarlatina", ezagutu izan dezue?

M.L. -Guk ikusi ez baiña aitu bai. Nik pasa nun "Sarampión con Escarlatina".

G. -Eta zeintzu ziran "Escarlatinaren" sintomak.

M.L. -Ba gutxi gora bera zera bezela, *Txarranpiña* bezela bian gorri gorri iten ziñan eta gero tartian beste grano koskor batzu ateratzen zian punta horiyekin eta haiek ya, ba, zien bi gauza, *Txarranpiña* batetik eta "Escarlatina" bestetik.

G. -Ile koloretik ze ondorioztatzen duzue, entzuna daukazute zerbait...

M.L. -Esaten zuten zenbat eta ille beltza iruki aguro zuritzen zala esaten zuten. Gure aitak esaten zun beak oso ille beltza zuela eta ille ua askoze auruo zuritzen zala beste kolorekoa baño, ta gure aitak hogei urteako illea zuritua zuen, zeatikan oso beltza zuen, ta pixkat argiyo duenak, gure ama bezela, rubioxka zan eta gure amak tartian bat edo beste baiño etzitzaion horrenbeste igertzen zeatikan ille beltza etzuelako aitak bezela.

G. -Eta begi koloretik?.

R. -Ez, esan nai nuke alegiya, ille beltza dunak generalian begiyak e beltzak izaten ditu, eta ille argia duenak ille argia.

M.L. -Baiño batzutan hori ez da normala izaten, batzutan gertatzen zan ille beltzekin begi urdiñak.

G. -Orduan gaixotasunekin erlazionatuta ez dakizute ezer.

R. -Hori gibeleko miña daukazunean begi horiyak erukitzen dituzu.

M.L. -Barrena e, gauza zuri hori horitu. Horretarako len len erremediyuak izaten ziana, gauza naskagarriya da...

R. -Oi, ez esan hori e?

M.L. -Ez, ez, bañon...

R. -Ez esan hori...

M.L. -(Remedios en alaba) Bai, bai, esan.

R. -Ez esan hori.

M.L. -Oi baño hori zan, jaten..., hayek jaten zutena o hartzen zutena neska¡

R. -Hori ezin leike iñori esan zeatikan igual gezurra da.

M.L. -Nola izango a gezurra gure amak esaten zun...

R. -Nik ez det hori xinisten, nik ez det hori xinisten ta ez esan.

M.L. Zuk nai dezu ez xinistatu baiño nik bakit amak etzuela gezurrik esaten.

R. -Hemen ateratzeko moduan da berriz hori?

M.L. -Ez det aitatu zer tzan, ez det aitatu zer tzan.

G. -Jarriko degu nahi dezutena ta gaiñera nik aitua daukat historio hori e?

M.L. -Horregatikan ba, horregatikan, ta beste gauzik etzan eta gure amak esaten zuen nola ze itten zituzten ta halakoi, ta halakoi eta orduan ematen ziotela, ez det uste gezurrik esango zigunik amak.

R. -Nik hori ez det xinisten.

M.L. -Ba zuk ez dezu xinistuko, nik bai, beste rremediorik etzeon orain bezela, orain antibiotikoak, eztaki zer ta baki zer, ta orduan ba beste gauzik etzan izango, eta orduan hayek e aitua o ikusiya izango zuten.

G. -Dena den hori zan "Difteria" sendatzeko...

M.L. eta R. -Ez, ez "Hepatitis" edo...

R. -Gibeleko miñentzako.

M.L. -Len etzan esaten "Hepatitis", "gibeleko miña", horri deitzen tzitzaion gibeleko miña.

G. -Bueno, aurrerago hitzegingo dugu horretaz, geroxeago galdetuko dizuet.

G. -Eta bekaiñen itsuragatik edo...

R. -Ez.

M.L. -Ez det aitu izan ezertxore.

G. -Garai hartan pertsona bat osasuntsua zegoela esateko, zeri begiratzen zenioten.

M.L. -Itxurai begiratuta.

R. -Ba nik esango nuke ez bakarrik itxurei begiratuta arrantzaliak batezere, zeatikan gure osaba Sebastian ateratzen zan itsasoa ta eamaten zun jateko ogi koxkor bat eta bi onza txokolate, eta harrekin igual pasatzen zitun hiru eun itsasoan, hura jan ta besteik gabe. Eta naiko arraikin etortzen zan gero etxea, eta total, ezer ez balitzake pasa bezela harrek segitzen tzun igual. Horrek zer esan nai du, osasun haundiko gizona zala.

M.L. -Beste askok berriz hori egin naita ere, ba albuik ez hori iteko, nai ta in ta albuik ez zeatikan bere gorputzak etziyon hainbesteaiñoko ematen zeatikan debillo, edo nola jaio zan, batzuek txiki txikitatikan, hau pasa zuelako, bestea pasa, mintxu, beti mintxu. Horko, zera ibiltzen tzan bezela, este... Reimundo, goatzen al tzea?, beti mintxu, baiño ya txikitatik. Eta beste asko berriz...

G. -Uste duzue ametsak zerikusirik daukatela osasunarekin edo gaixotasunarekin?, ametsak, amets egiteak?

R. -Askotan esate ute ametzak itea ona dala, ba hori egiya baldinba, nik oso ametz gutxi iten det.

M.L. -Eta hori egiya baldinba, nik asko. Eta ni, zea ere bai lotan naola, hitz asko. Len esaten zuten hitz iten zuena, "horrek estomaua zerekin tziakan, kargatu", estomaua nola izate an pisua, enpatxua dakarrelako, zikiña, ta gabas hitzegiteko... Gue amak askotan entzuten tzun hizketan ta "oain e estomaua zikiña dauka horrek". Gabaz izketan baiño, nik ez det uste estomauko kontu hoitan, zeatikan ni beti, garbiyakin ta zikiñakin igual, esaten naute hitzegiten detela gauaz.

R. -Ni ametza kontu, ni e naiz goatzen beintzat, ze ametz klase eiten dituten. Noizik eta bein gooatzen ba naiz, "oi, gaur ametz in det", baiño noizik eta bein bakarrik.

G. -Bai, neri gauza bera gertatzen zait, ni gogoratzen naizenerako..., Jesus¡, oso arraroa da.

G. -Beno, beste galdera bat. Doministikuei buruz, zer dakizute.

R. -Katarruen etorrera izate ala.

M.L. -Buruko hotza harrapatzeana esaten tzan, "burua hoztu zait o"

R. -Hara katarrua datorkit, daministikuka hasi naiz.

G. -Eta doministikuak gaixotasun batekin lotuta?

M.L. -Ez, ez.

G. -Edo gaixotasun baten sintoma bezala?

R eta M. L. -Ez, ez.

G. -Eta osasunaren sintoma bezala?

M.L. -Gue gizonak bronkiyetako nola zuen, hura dominiistikuka hasten balinba zan gaiñian tzuen bronkitis, beak bai, baño nik naiz ta beste edozeiñek dominiistikuak ein, eta harrek ya ez daka..., hura pasatzea ta akabo. Baiño gue gizonak beti dominiistikuka hasten tzanian, adios, harren atzetikan ya bronkiyotakoa.

G. -Besterik ez, ezta?

M.L. -Ez, ez.

R. -Bat iten tzuena gaizki zeola, bi iten tzituena hobetoxeo, ta hiru iten tzituena berriz aberatx porrokatua. Hala esaten tzuten (parrez).

G. -Eta gau haizeari buruz? Gau haizeari buruz esaten zan zerbait? Igual gaixotasunen bat sortarazten zuela edo...

M.L. -Hori esaten tzan, leorreko haizia egun asko gabaz, burutikan ondo etzeonak nastutu iten tziala.

G. -Hori hego haizearekin?

M.L. -Bai, bai.

G. -Besterik badakizute?

R eta M. L. -Ez, ez.

G. -Zer egiten zan gela bateko, adibidez, logelako haizea hobetzeko, garbitzeko. Ba zegoen zerbait?

M.L. -Leyo iriki ta...

R. -Garbitzeko? Norbait iltzen tzanian, garbitzeko gela hura iten tzan ontzi batian azufria jarri, eta sua eman azufriari eta hura bukatzen tzanian ya desinfektatuta bezela gelditzen tzan gela.

G.Arropei buruz?

R. -Arropa?.

G. -Bai.

M.L. -Neguan igual mee xamarra tokatuko zitzaizun soiñekua eta uran lori xamarra, ta aguanta, tira. Han etzeon ibiltzeko neguan jaso det ta urarako. Tokatzen tzana hura plast eta zaltz eta lissto.

G. -Eta zuek ezagutzen duzue gaixotasunik osasunaren sintoma denik?

R. -Gaxotasun bat osasunaren sintoma dana?

G. -Bai.

R. -Esaten tzuten gaixoik zeon pertsona "hombre enfermo, hombre eterno" eta "mujer enferma mujer eterna"(parrez).

M.L. -Hori erderaz esaten tzan "mujer enferma, mujer eterna".

G. -Besterik ez?

M.L. -Bueno len esaten tzan tentsio altua zutenentzako ona zala odola botatzea zudurretik bestela jotzen tzion *perlesiyak*, ordun *perlesiya* esaten tzitzaion.

G. -Zer zan hori?

M. L. -*Perlesiya* esaten zan orduan, pues..., una"paralís". *Perlesiyak* jo, gelditzen tzan erdiya... hilla ta "*perlesiyak* jo omen du" eta askotan izaten tzan hori odolakin garbirik etzuelako, eta leno jartzen tzian sangijuelas odol hori ateratzeko. Gure Migelen aitai saiñak goaizekin...

R. -Ebaki.

M.L-Ez, ez, zulatu eta odola atera, zeatikan beak esaten tzun, oaindikan tetxuan e marka zeola, txuritu eta beti ateratzen tzala, beti. Odola fuertia omen zuen gelditzen tzitzaioten zerraldo, e, hilla bezela eta nonbaiten holakok burua jotzen tziyon, ta bueno, korrika ibiltzen tziala, sangijuela haien billa, eztakit noa ta noa joaten tzian.

G. -Zomorroak ziran, ezta?

M.L. -Bai. Eta heltzen diyote hoyek, hola aragiyai, baño nola, eta txupa ta txupa ta txupaz odola, leertu arte. Gero botatzen tzituz tela ez takit ze kajetan.

G. -Ta non aurkitzen zituzten sangijuela horiek?

M.L. -Mendiyan, mendiyan.

R. -Eta botikan e, uste det joaten tziala.

M.L. -Klaro, klaro. Mendia joaten tziala, baserrieta zeatikan esaten diyotenez biltzen tzituzten, klaro gero etorriko zan gauza botiketan irukitzia.

G. -Zer ezagutzen zan gaixotasun baten kausa bezela.

M.L. -Biarba, ba... amak, ama alkolikoa izatia ta barnean iruki zuen bitartian alkol asko sartu ta ume hayek ateratzen tzian, ya, osasun gutxikin, eziñ aurrea aterik, oso argalak eta hori, gaitz hori, bueno nik gaitza deitzen diyot horri e, eta asko hola pasatzen tzan, gauz hoyekin. Baiño bestea normalki pues, ez, bakarrikan kontu hori, hori aitu izan diyou amai.

G. -Adibidez, gripearen zergatia zein zela uste zenuten?

M.L. -Hori esaten tzuten beti, birus, oain esaten dan bezela, al karren peatzen tzana, peakorra.

R. -Negu aldian beti izaten tzan, bere azalpena egiten tzun horrek, negu aldean beti.

M.L. -Hotzak hasten tzian bezela orduan jendia hasten tzan dominstikuka, katarro, estulka, kalenturak eta hoyek denak, eta hori zan betiko zera, gripe, ta gero aspirinak besteik etzan izaten, ta esne berua eta aspirina.

G. -Ze janari kontsideratzen zen kaltegarritzat osasunerako, ba zeon janaririk kaltegarria zenik?.

M.L. -Guk denetatikan jaten genun, gaxuak, dena zan ona guetzako.

R. -Eltze bat ta kazuela bat.

M.L. -Akabo ¡bakallua patatakin, babarrunak eta aurrea, tomatia aragi pixkatekin ta...

R. -Tortilla patata ta...

M.L. -O bakaillukin tortilla pixkat in, o arrain prijitu, berdelak, o txitxarruak...

R. -Etortzen tzienan.

M.L. -Ta oain ezta aitzen baño, lehen "potakarrak" e izaten tzian, oain ez dia harrapatzen.

G. -Zer?

R. -"Akulak", bakizu zer dian?

G. -Bai.

M.L. -Baño dia akulak eta beste batzu "potakarrak", famili batekuak baño ez dia berdiñak. Eta bueno, guetzako etzeon ezere txarrik, denak ondo egiten tzigun guri. Gero karrakelak hartzea juten tziran Kaputsinoseta, baiño gu ez, gure aita ta. Eta gañea bein ez dakit ze gaitza ere ekarri zuten karrakela hayek, tifus o, hoyek loi tartian egoten tzian ta segun igual loi zikiña o.

R. -Bai askotan gertatze a, hoyek e bere sasoyak izate dituzte harrapatu leixkenak, eta biarba guk jan genituen hartan, bueno guk ez genun ezer e harrapatu e?.

M.L. -Guk ez.

R. -Bañon, jende asko eondu zan gaxorik.

M.L. -Zeatikan sasoya nola dian, igual sasoyaz fuera juten tziran ta...

R. -Ta baliteke hori gertatzia e?

M.L. -Baño almejak bai, almejak hemen errekan gu juan izandu gea, gu almejetan ibili izandu gea.

R. -Gue ama yayua zan gañea e?

M.L. -Maria jeixten tzanian, ba eozein joaten tzan eta atxu rrekin, makiña bat aldiz eondu gea. Eta gue ama bealaxe igertzen tziyon, zeatikan esaten tzuen almeak tzeon tokiyan, holakoxe xuluak eoten tziala, eta orduan ya, tta, tta, tta, tta...

M.L. (Remediosen alaba) -Hondar tartian.

M.L. -Harri tartian e? Harri asko izaten tzan e?

R. -Bañon oaiñ baño garbiyaguak errekak.

M.L. -Jesuuus¡Porque mariajia goyen eonta ere ikusten tzenitun be beko Harriyak, garbi askua.

G. -Orain bezelaxe, ezta?. Ba zegoen janaririk bero edo hotza ematen zuena?.

R. -Pipermiña jaten ba zenituen...

M.L. -Orduan izerditan berealaxe, berua sartzen tzitzaitun gorputz guziyaño. Guk ba genun osaba bat "El Riojano", jaten tzitun harrek piperrak, ta geo izerdi tantoka, tantoka, tantoka.

R. -Etzuen hotzik pasatzen harrek geo, hayek jan ta.

M.L. -Oain dia kontuak, "esto tiene tantas calorías, aquello tiene tantas calorías".

R. -Geo tebeo batian etortzen tzian umeentzako kontuak, eta nola oain etortzen dian "nosecuantos y Filemón"ta orduan etortzen tzan "El profesor Pelito", ta karrakelen buru jator jatorra, horregatik karrakelei deitzen geniyen "El profesor Pelito". (parrez biak).

G. -Pertsona bat gaixo zegoenean, nora jotzen zenuten, sendagilearen gana..., nora

M.L. -Beai deitu etxea, bea etortzen tzan etxea, zeatikan oain bezela etzan ez kontzultik iñoa eamateko, hombre, gauza haundiya balinbazan, Donostia, hospitalea, baño bestela, etxian pasatzeko gauza balin bazan, etxian. Don José hemen tzan medikua, ta: "Don José halako tokieta" ta Don José zanba, zanba, zanba, batzuetan asmatu bestetan ez baiño etxian.

G. -Infezio bat zegoenean ere bai?. Sendagilea etortzen zen?.

M.L. -Oi, gue aita etzan etxetik atera, tifusekin e, ta ni re ez. Ez giñen atera gu.

M.L. - Geo ba zeon emakume bat, Agapiren amuna, ta harek sendatzen zitun *gingillak*. Len *gingillak* ateratzen tzian "crecederas" oain deitzen diyote.

R. -O "paperas", ta orduan deitzen tziyoten *gingillak*, koxkor ba tzu.

M.L. -Ta platerian jartzen zitzayon oliyoa, bueno beak jartzen tzun oliyoa ez takit zekin, ta aitzen tzan bea, igurtzi, igurtzi, igurtzi, ta "gingillak dirade zortzi, zortzitik zazpi, zazpitik sei, seitikan bost, bostetik lau, lautik hiru, hirutik bi, bitikan bat, gingillak dirade zirti o zart". Horrekin bukatzen tzun. Ustet hamarretik hasten tzala.

R. -Ola nabaitzen tzenuenian zerbait eztarriyan "Manuelai esan etortzeko".

M.L. - Manuela Zumayarra.

G. - Bestela beti sendagilearengana jotzen zenuten ezta?.

M.L. - Don José beti, o bere etxea o bea etortzen tzan.

R. -Katarro xinple bat zanian ez e?

M.L. - Ez, oain bezela anbulatoyoa ta hemendik eta han dakat, ke baaaa¡

G. -Eta adibidez hezur kontuarekin ere bai, sendagilearengana?

M.L. -Hezurren asuntuekin bazien hemen konpontzen tzituztenak, Niko laxa, harrekin gue "Tio Joxeri" makiñak, bueltatu in tziolako eztakit ze in tziolako, harrek konpontzen tzitun, eztakit San Pedron izango an etxe bat andre hua pasa etzanik.

G. -Zer zan bertakoa, hemengoa?.

R. -Bixi bai hemen...

M.L. -Guk beintzat hemen ezautu deu beti Nikolaxa.

G. -Eta zer zan espezialista hortan?.

R. -Queeeee? espezialista¡.

M.L. -Baña guztiya jartzen tzituen, konpontzen tzituen, eztakit nola ta nola, baña masajiak oliyoarekin ematen tzitun. Etxietan ibiltzen tzan Nikolaxa hori, Jesús, hua ta, ta, ta, ta, ta, hua martxa hizketan, Jesús, hua martxa.

R. -Ba Nikolaxak iten tzuen oliyo epela, kamamillo batzu bota, oliyu hartan, eta epel epel iten tzanian hura, harrekin ematen tzitun masajiak.

M.L. - Ta eunero joaten tzan etxieta eta gañea, zuk ze ematen zeniyon e? Harrek etzun "precio fijo". "Zenbat zor dizut?-Hainbeste". Al tzuenak al tzuena.

G. -Eta zein zen, adibidez pertsona bat gaixo zegoenean, zein zen hobetzen zijoanaren sintoma.

M.L. - Kalenturak uzten tziyonean, ya gauza hobeto zijoala.

R. -Ta jateko gogua etortzen tzitzayonian.

M.L. -Bai, sintoma hoyek.

R. -Hortik igertzen tzan hobeto zijoala.

M.L. -Norbeak, norbeak, e?. Zeorri ateatzen tzenion antza nola zijoana.

G. -Zer egiten zen osasuna mantentzeko edo gaixo ez jartzeko.

R. -Ezerrez.

G. -Eta zenbait gaixotasuna erasotzeko?.

M.L. -Bueno, katarrua tzanian eukalitus ta, gauza hoyek danak. Eukalitus egosi etxe guziyan usai hura ibilli. Ez genun ezeren prekauziyoik hartzen, etortzen balinbazan etorri, eta...

R. -Etorri bezela jun iten tzan.

G. -Belarrik bazeon garai hartan?.

R. -Bai, *pasmobelarrak* pasmoentzat, ta *plantilla belarrak* e bai, txitxarientzako umiak txitxariak eta tzituztenian, egosi ta harren ura hartu ta umiak txitxaria zituztenian, hua edan ta..., bo ta iten tzituzten.

G. -Eta *pasmobelarrak* zertarako ziren?.

R. -Hori bazeon ebakin bat eiña ta gero gaxtotu iten ba tzitzaizun, garbitzeko infeziyo hura, *pasmobelarren* ura.

M.L. -Ta angina txarrak zianian e *pasmobelarrak*.

R. -*Odolen belarrak*.

M.L. -*Odolen belarrak* izaten tzian bai. Pasmoentzako *pasmobe larrak* eta bestela *odolen belarrak*.

R. -Kanpanilla urdiñak, oso politak zian hayek.

M.L. -Etxian irukitzen genun xakoa, xako bat e?. Xaku hartan bota lenbizi *pasmobelarrak*, ta lokarri batekin lotu. Gero *odol belarrak*, gero hua lotu. Gero *plantilla belarrak* hua lotu eta han botika eoten tzan etxian. (parrez)

R. -Botikiña. (parrez).

G. -Etxeetan normalean, ze medizina edukitzen zenuten.

M.L. -Aspirinak eta zerak, "lasantes""lasantes Bayer".

R. -Ta estula tzeonian berriz, "las pastillas del Doctor Andreu".

M.L. -Ta "jarabe de Tolo y Brea ".

G. -Bainoak erabiltzen ziren zerbaitetarako?.

R. -(Parrez lehertzen).

M.L. -Gaixuak, Torreatzen. Traje de bañuakin. (parrez). Aitu, beste gauza bat, bañuak bazian Antxon eztakit zeiñ andre, goatzen al tzea?(bere ahizpari)Amarretxetan o..., nola juten tzan gue ama bañoak hartzea etxe batea?.

R. -Bai, bañon, gaixoik zeolako, reuma sendatzeko. Baiño ez bañatzeatikan.

M.L. -Ez, ez, ez. Remeyo bat bezela.

R. -Baño etxian, fregadera o kaldera.

M.L. -Eta gero "petrikillo"?. Hua Hondarrabian, mediko abek eta anbulatoyoak sortu baño lenuo.

R. -Hua geoztikan tzan.

M.L. -Joaten tzan gerriko miña zuena, harrengana ba, masajiak eta hartzea, askotan okerrao jartzeko e?. Askotan gue aita, nola etortzen tzan gue aita, etzan posible, etzan posible, geo ta okerro, gero ta okerro, ta askenian utzi.

G. -Eta bentosak erabiltzen ziran?

R. -"Pulmoniya" zanian erabiltzen ziran.

M.L. -Gue amak ziyon fedia bentosai¡

R. -Nik jarri izan ditut.

M.L. -Izaten da baso batian guata alkol pixkatekin bota, sua eman, hartu hura eta pla¡ buelta eman eta holaxe ateatzen tzizun aragiya kanpoa, eta gero ya leortzen tzan bezela alkol hura, bea ya bakarrik ateatzeko zian. Ateatzen tzenun, ta lajatzen tzuen hola dena, more, more, more iña, eta horrek esan nai zuen gaitza ateatzen ai zala.

G. -Hori normala zen erabiltzea etxeetan?

M.L. -Bai, bai, bai.

G. -Edozeinek jartzen zituen?

R. -Bai, bai. Guk jarri izan degu. Amai zenbat jartzen nizkak.

G. -Eta "pulmoniarako" bakarrik erabiltzen zen?.

M.L. -Generalian "pulmoniyentzako". Eziñ arnasik hartu hori, eta estula, estula, ta miñ hori, "pulmonia" batian, eta biyetan balinbazan esaten tzan "pulmonia doble".

G. -Eta non jartzen ziran bentosak.

R. -Bizkarrian. Goitik hasi ta beraiño.

M.L. -(Remediosen alaba) Eta hori zer tzan, izerdiya botatzeko?

R. -Ez, ez, odol txarra ateratzeko.

M.L. -Gaitza ateratzeko. Marka bat gelditzen tzan more, more, morea. Señale ona izaten tzan hori, señal "que"gaitza ateatzen ari zala. Askotan etzun ezer ateratzen, plas, eta etzuen harrapatzen halako gaitzik. Baño fuertia balinba zenun helduko zizun harrek, heldu eta ya gero atera suabe.

R. -Berehala bukatzen tzan, jarri ta pla, hola, eta itzali iten tzan.

M.L. -Baño harren berotasuna, jarraitu iten tzuen. Gue amak sendagi lei deitu gabe koñadua sendatu zun.

R. -Eta sendagillei deitu ziyotenian, etorri zanian ikusi ziyon bizkar guztiya zekala markez betia eta esan tzion gue amai "hemen baton batek makiña lana in du hemen", eta gue amak hori aitu zuenian esan tzun: "gaizki iñ ote yot", eta eskerrak jarri zizkala.

G. -Orduan "bentosa" bat jartzeko, ze behar da?.

M.L. -Baso bat, algodoya, algodoya alkoletan buztiya eta bota, eta geo poxpolo batekin sua eman, eta hartu ta jarri. Kontuz zeatikan deskuidatzen balinbazea askotan, ba, biar bezela ez ba zenun jartzen, iten tzan erre. Biar tzenun pixkate habilidadia, hola hartu ta, pla¡ jartzeko.

G. -"Bentosa" horiek jartzeko eta "sangriak" egiteko, garai berezi bat behar zen?.

M.L. -Ez, ez. Gaxotasuna heltzen tzanian, orduan iñ.

G. -Purganteak erabiltzen ziran gaixotasunik antzemateko?.

R. -Ez. Lepoaño betetzeakuan, orduan.

M.L. -Bañan, enpatsua zia ta, lasante "Bayer", "Natalioenea", o bestela, beste hua, "jarabe de manzana", "aceite de ricino". Ay¡, netzako "aceite de ricino", Jesús, hori zea gorrotua niyon nik azeite rrizinoi. "Jarabe de manzana" goxua izaten tzan. Eta txokolatina "de Bayer"? Primerakua.

G. -Ba zegoen zerbait botarazteko.

R. -Botarazteko ez.

M.L. -Etortzen tzienian goguak bota ta kito.

R. -Bestela biatzak sartu.

G. -Mantzanila ez zen hartzen?.

R. -Botatzeko ez, orduan hartzen ba zan mantzanilla asientatzeko be zela, ez botatzeko.

G. -Pentsatzen zen gaixotasunak etor zitezkela begizkoetatik?.

R. -Batzuek bazuten hortan fedia.

M.L. -Guk ez e?

G. -Baino sinisten zen hortan?.

M.L. -Batzuk bai, asko gañea.

R. -Geyenak kanpokuak ziren, baño bertakuak e bai. Gue amari gertatu zitzayon garintxaz betia zitun esku guztiyak, eta ezin tzitun ezer txoekin atea

M.L. -Bakarrikan izaten tzan zea..., "Nitrato de Plata", besteik etzan.

R. -Ta (amataz) goiztarra zan oso, ta goiz jeikitzen tzen, ta goiz ba tian sukaldian tzeon ta...

M.L. -Baño hortako esan tziyoten, nahi balinba dituzu biatzatikan garintxak atera, zuk ikusten balinba dezu, hola, alban baton bat kalian dijoala, edozein tokitan, zuk esayosu: "gizontxo", o zein dan, esan biar diyosu: "Bueno, nik eskuetan dakazkiten guziyak zuetzat", bañon hola, e?, hizketan hola.

G. -Besteak aituta o aitu gabe.

M.L. -Ez, ez, hola, lenbizikoan aitu ta "Egunon gizontxua eskuetan dakazkiten guztiyak zuetzat", hua zan aurrean, baño, beak esan tziyon joaten tziala garintxak. Eta gue ama, nola goiztarra zan, sukaldian hola, bein tzeola, San Juango mendiyan bide batean omen tzijoan gizaseme bat eta leyotikan"bueno gizontxoa nik eskuetan dakazkiten guziyak zuetzat" eta bere garintxa guztiyak joan iñ tzitzaituzkan amai.

G. -Besterik ez, ezta.

M.L. -Ez, ez.

G. -Zein gaixotasun ziren kutxakorrak?.

M.L. -"Tifus", "gripe", "hepatitis"ere bai, *txarranpiña* ere bai *kokotxa estula* ere bai.

G. -Gaixotasunak sendatzeko, botoak edo peregrinazioak egiten ziren?.

M.L. -Bai, ta hortako bakarrik ez. Neartia zana re, ni nola oso neartia izango naizen, ez takit noa eaman ninduten, handikan ez takit nondikan, mantotikan bueltak eman o ez takit zer, Ama Virgiña Ubakuai, eta neartiya zana ya akabo, ya gelditzen tzan...

R. -Kalmatzen tzan.

M.L. -Ba nik Ubako bueltak eta danakin, "o igual o peor". Batzuek igual Uban ateako tzitzayoten baño, gue amak esaten tzun ni Uba eaman, ez takit noa eaman, ta gero eamaten tzituzten Lezoa, "Bitxintxo" egunian, ez takit zerta, zertako eamaten tzituzten "Bitxintxo" egunian.

R. -Oi, Santo Kriston oiñetatikan pasatzeko haur guztiyak, usayo bat, oitura.

M.L. -Hola, gaitza, zerak eta zirenian, fede haundiya bai, San Roke.

G. -Ta zer eramaten zituzten, haurrak edo...

R. -Txikiyak bakarrik, txikiyak.

G. -Eta zertarako eramaten zituzten, gaixotasuna sendatzeko?.

M.L. -Ez, ez, ez, dena.

R. -Gaixorik zeudenak eta etzeudenak e bai, danak.

M.L. -Zenbat ume joan dian hemendikan motorretan, hemendik Lezoa, motorrak betiak e? Bixintxo egunian. Hori izate a "el 1 de Setiembre".

G. -Sendatzeko erabiltzen ziren bedeinkapenak edo plegariak o..., zerbait egiten zen?.

M.L. -Ba San Rokeri, hola, eskeintzen tziyoten, hola...

R. -Nobenayuak iten zian e?

M.L. -Gaitza fuerte xamarrak zienian, ba San Rokei nobenak eta iten tzian, zeatikan San Roke da hortako abokatua.

R. -"Libranos de la peste San Roque".

G. -Jendeak uste zuen gaixotasun bat kontagiatzerik ba zegoela, nahita, propio?

M.L-Apropos jartzen tzan, *txarranpiña* balinba zan bai, bi edo hiru ume balinba zian etxian jartzen tzituzten oyian alkarrekin, *txarranpiña* denak batian pasatzeko,

zeatikan *txarranpiña* bein edade bat ezkeo pasatzeko txarra da e? Umetasunian ez baño... Eta askotan sartu oyian eta harrapatu ez.

G. -Posible zen gaixotasun bat desagertaraztea zerbait lurperatzen?

R. -Garintxetako esaten tzuten, sagar bat sartuta, lurrazpiyan sartu sagarra eta hua usteltzen tzijoan bezela juten tziela.

G. -Eta beste gaixotasunik desagertzen zena zerbait lurperatzen?.

R. -Garintxena bai baño besteik ez.

G. -Gaixotasunak sendatzen ziren garbiketa bereziren bidez?.

M.L. -Bai. Nik pasa nuen "sarna", ez takit nondik harrapatu nun, nik eskolatik o ez takit nondik, eta badakizu eunero, eunero, eunero, amak nola sendatu xidan. Larru bixian jarri kaldera batian, azufria bota ura harrei eta espartzu batekin gorputz guziya arraxka, arraxka, arraxka, odoletan jarri arte, eta azufri harrek, nola larrotua zenekazun azal guziya, ta harrek iten tzizun, lehortu ta sendatu. Makiña baño eman tzidan nee amak, azufriarekin, ur naiko berua. Hori izaten tzan erremeyuik onena. Sufritzeko e asko e?. Hura sendatu bitartian zenbat sufritu biar tzan.

G. -Gaixotasunen bat sendatzen zen zerbait usteltzen uzten?

M.L. -Ez, ez det iñoi aitu e.

G. -Amuletoak erabiltzen ziran gaixotasun baten zergatia jakiteko?

R. -Bueno, atietan jartzen tzian, denborak txarrak zienian, tximista ta trumoya, ta gauz hoyek zienian, ba atian, zerian jartzen tzian, atien kanpoko aldian, baserriyetan ta generalian jartzen tzian, gurutziak egurrezkoak, egurrakin iñ gurutzia eta hayek jarri.

M.L. -San Migelera joaten tzirenean, Urnieta, ta ekartzen tzituzten zintak, gerriko miñentzako tzian. Bakizu, gizaseme asko lanaren latza eta biartuak gerriyetatik, eta hara joaten tzien ta zinta hura urte guziyan ibiltzen tzuten e?, ta gero berriya ekartzen tzanian, zintz hura iten tzan erre, ta berriya jarri.

G. -Ba zegoen gaixotasunik izerdi zeriola sendatzen zena?.

M.L. -Gaitza zenbat eta..., gripe, zenbat eta izerdi geyo bota gaitza kanpoa ateratzea.

G. -Igurtzapenak, ze gaixotasunetarako erabiltzen ziren?.

R. -Reumak zenituztenian, reuma zanian, masaje batzuek ematen zizkaten.

M.L. -Orduan bakarrik zana botiketan "Lapiz Termosan". Holakoxeko barra bat, ta igurtzi, ta igurtzi, ta igurtzi.

G. -Pertsona batek kalentura zuenean, zein uste zen zela zergatia?.

M.L. -O enpatxua zenuelako ere, askotan igotzen tzan, gripekiñ e bai, ta gaitz hoyekin.

G. -Kalentura mota ezberdinak zeuden?.

R. -Berdiñ erukiko zu, angiñak dituzunian, naiz ta estomaua zikiña balinba dakazu ere, hogeita hamazortzira igual igo lizaizuke anginakin, enpatxuakin, ta berdin.

G. -Ta zer ematen zen kalenturarako?.

M.L. -Aspirinak ta esne berua.

G. -Ta eztarriko mina ta estula kentzeko?.

R. -Esnia ta eztiya.

M.L. -Ta sedasko pañuelua lepoan jarri.

G. -"Tosferinak" beste izen bat zuen?.

R. -*Txakur Estula*.

M.L. -Bueno, *Txakur Estula* gauza bat zan eta *Kukutxa Estula* bestia.

R. -Bueno, *Txakur Estula* ta *Kukutxa Estula* gauza bati esaten tzitzayoten.

M.L. -*Txakur Estula* zanian, eoten tzan bildurra *Garrotillua* ote zan, holako *Txakur Estulakin*. Eta *Kukutxa Estula* zan ari, ta ari, ta ari, ta ari, ezin bueltik eman. Eta *Txakur Estula* nabai tzen tzanian, batzuetan izaten tzan *garrotilloen* zera, sintoma.

G. -"Tuberkulosia" zergatik hartzen zen?.

R. -Generalian debilidadiatikan.

M.L. -Bihar haña jaten etzalako, nola etzan jateko etxe askotan.

G. -Eta zer ematen zen hori sendatzeko?.

R. -Generalian hill iten tzan jende hura.

M.L. -Eta al tzuenak hill bitartian, hiltzen ez ba zan e, bueno, naiz eta beste etxekuak jan ez, harrei ba, arraultzak eta, aragiya ta, al tzanian gauzik onenak eman. Besteik ez.

G. -Zuek ezagutzen duzue "La Coriza" gaixotasuna?.

R. -Ez takit zer dan hori. Ez det gañea aitu.

M.L. -Aitu bai. Prospetuetan, etortzen danian, "no se qué, no se cuantos y Coriza". Jakitez ez takit zer dan baño prospetuetan azaltzen da.

G. -Inork odol jariorik izan ezkero, zer egiten zen?.

R. -Segun ta nondik zan. Sudurretik balinbazan tapoyak jarri, algodoyarekin, ta besteik ez.

M.L. -Eta bera balinbazan odola, ba orduan iten tzan, oyan, almuada atea, eta anketan jarri.

G. -"Anemiarentzat" zer zegoen?.

R. -"Anemiarentzat", ondo jatia.

M.L. -Oain bezelako bitamina botika joan ta, gauza hoyek etzian.

G. -Eta odolaren zikinkeriarentzako?.

R. -Pasmobelarrak.

M.L. -Odolbelarrak.

R. -Pasmobelarrak. Zikiña balinba zeon.

M.L. -Odola garbitzeko, zera, kanpanilla gorri hayek izaten tziran.

R. -Odola loriya balinba zeon bai, meetzeko. Kanpanilla urdiñak zian meetzeko. Eta pasmobelarrak, garbitzeko.

M.L. -Bueno baño, pasmobelarra hartzen tzan granuak eta zeozer ebaki, orduan iten tzan infeziyuarentzako. Baño bestela odola meetzeko, infeziyoa garbitzeko pasmobelarra eta odola garbitzeko odolbelarra.

G. -Eta zer pentsatzen zen odol gaixotasunaz. Nola hartzen zen edo zergatik hartzen zen?.

M.L. -Ez takit jendeak buruik asko austen tzionik pentsatzen zergatik zetorkitela hori.

G. -Hori normala zen?.

M.L. -Bai, oso normala zen. Batek pentsatzea, honengatik etorri ote an, o horrengatikan.

G. -Estomaguaren gaitzen zergatiaz, zer pentsatzen zen?.

M.L. -Arraultz ustela gustoa etortzen tzitzaizunean aboa, estomagua zikiña.

R. -Baño zergatik zetorren hori.

M.L. -"Atrakon" bat in tzenuelako o. Askotan biar bezela Obratzen" etzenuelako o, askotan leortzen zizun gorputza ta gero ba, nola ez dezun biar aña iten, ba gero estomaua zikiño ta zikiño.

G. -Horretarako zer egiten zenuten, estomagua sendatzeko alegia.

M.L. -"Jarabe de manzana" ta "Bayer". Ta bestela estomauko miña balinbazan bikarbonato. Etzeon besterik.

G. -Diarrearentzat, zer zegoen?.

R. -Arroza.

M.L. -Arrozak eta, azanayuak eta.

G. -Horrentzako ez zegoen belarrarik?.

M.L. -Ez, leortzeko belarrarik etzeon.

G. -Ta katarrorako, kostipadurako, ez zegoen belarrik?.

M.L. -Orduan ez, aspirinak bakarrik eman.

G. -Nola uste zan eratzen zirela zizareak?.

R. -Gozo janda esaten tzuten.

G. -Pentsatzen zen gaixotasun bat etor zitekela zizareak izateagatik?.

R. -Estietako miña esaten tzuten etorri leikela.

G. -Bomitoak beste izenik bazuen?.

M.L. -*Goraka* ta *gonbituak*. "Goraka aitu nan bota izkiñat gonbito batzuek".

G. -Gibelaren gaitzen zergatiaz, zer dakizute, o zergatik hartzen ziren gibelako gaitzak?.

R. -Erariengatikan geyenak.

M.L. -Bai, batzuek, erari asko eaten zutelako ta... hondatu gibela.

G. -Orduan, alkolagatik batez ere.

R. -Bai, bai. Bueno, arroz geyegi janta ere bai, etorri leike.

G. -Zergatik hartzen zen "Ikterizia"?.

R. -Hori hotzetik esate ute etortzen dala.

M.L. -Batzutan gibela hoztu eta... Eta esaten tzuten ikaratzen tzanian pertsona bat e, ikara haundi bat hartzen tzuenian, orduan hortik, bakizu nola esaten tzun gue amak izugarrizko ikara bat hartu zuela, San Migeleta ez takit noa jun tziela, trena beak uste baño leno o ez takit zer ta, in tziyon barrengo buelta gorputzak eta ikaratuta hori..., ez takit zeiñ izan tzan, Malen ote zan.

R. -Ba liteke e?.

M.L. -Malen ustet, hori, hori, hori, horiya, ta ikaratu zala, ta ikaratu zala ta hortatik ustet il tzala.

G. -Eta hori sendatzeko?.

M.L-Gue amak esaten tzun "Tio Paxkualek" bate jakin gabe jan tzituela, gue amak esaten tzun.

R. -Esniai bota ta.

ML. -Hori da. Esneai bota zorriyak eta buelta, buelta eman ta hua hartu. Garai hartan etzeon besteik eta.

R. -Naskagarriya¡.

M.L. -Bai, hala da baño etzeon besteik.

G. -Beste izena zuen "Ikteriziak"?.

R. -*Miñ Horiya*.

G. -Saihetsen minaren zergatiari buruz, badakizute zerbait?.

M.L. -Saietxa, hoyek, bai igual beiñ erori ta kostilla bat printzatu ta, piskat sartu ta, nola bi bider joaten giñan medikuengana, gelditzen tzan hua sekulako igual.

G. -Ta zer egiten zen horretarako?

M.L. -Ba fajakin, gerrikua deitzen tzitzayoten, zea, bufanda zabal, zabalak, luze, luziak, eta hayek.

G. -Buruko minarako?.

R. -Ba litzake zeozer?

M.L. -Buruko miña dakan, aspirina, txikiya balinba zan laurdena, haun dixeo balinba zan erdiya, ta haundiya balinba zan osua.

G. -Ta masajerik edo ez zegoen?.

R. -Ez.

G. -Zorabioarentzat?.

R. -Ezerrez.

G. -Nostalgiarentzat?

M.L. -Ezta ere.

G. -Zorotasunerako?.

M.L. -Hayek, gaxuak, eramaten tzituzten Santa Ageda.

G. -Ta horren zergatia zein zan?

M.L. -Batzuek bere kausa etorriyak, beste askok burua nastutu, ta milla aldeta etortzen da buruko naastuketa.

G. -"Baile de San Vito" gaixotasunak beste izenik bai al zuen?.

M.L. -Len "Baile San Bito" ta oain "Parkinson".

R. -Baño beste izenik ez.

G. -Eta gaixotasun horren zergatia?

M.L. -Beiñ e ez degu aitu zergatikan zan.

G. -Eta hori sendatzeko?.

R. -Eztet uste sendatzen danik.

M.L. -Eztet uste tzanik, orduan behintzat ezerez.

R. -Eta oaiñ e eztakit dan.

G. -Pertsona bat mozkortzen zenean, zer zegoen horretarako?.

R. -Azukreik gabe kafea ematen tzioten askok.

M.L. -Nola deitzen ziren haurren "espasmo nerbiosoak"?.

R. -Haurrenak?

G. -Bai.

M.L. -Atake batek eman diyo, zeatik ba?, eztakit, atake batek eman diyo ta.

G. -"Epilepsiak" beste izenik ba zuen?.

M.L. -"Ataques epilépticos" baño besteik ez. Erderaz bezala.

R. -"Epiléptico", orduan zer tzan hori etzekiyen iñork.

G. -Larruan ateratzen diren mantxetaz, ze pentsatzen zen? Hau da, lunareak edo pekak edo...

R. -Kutis fiña zuenai ateatzen ziezkan hori, ta bestela iruzki asko hartzen zuenai.

M.L. -Lunareak deitzen dira *Oriña*, baño guk ez genun erabiltzen.

G. -Oinetan ateratzen diren "kalloak", beste izen bat ba zuten?

M.L. -Guk "Kalloak" esaten degu.

G. -Nola sendatzen ziren?.

R. -"Kallicidas" ta jarrita.

G. -Pomadarik ez zegoen horretarako.

M.L. -Bai, este..., "Unguento Garcia" ta hoyek izaten tzian.

R. -Baño hori granoentzako.

M.L. -Bai, ta gero, "Kendu".

G. -Hozpelek beste izenik ba zuten?.

M.L. -Ez, ez, hozpelek ez tzuten beste izenik. Eta leno txarrak eta oaiñ e bai.

G. -Eta sendatzeko?.

M.L. -Etzeon erremeyuik ezertako. Arraska, arraska, ta arraska, ta arraska, odoletan jarri arte.

R. -"Tintura de Yodo" ematen tziyon.

M.L. -Baño noiz?.

R. -Bueno, baño ematen tzeniyon.

M.L. -Baño nik txikitan, ur beruetan sartu, ur hotzian ibiliya, erotua, ezere..., ze iñ jakiñ ez. Askurekin lehertu bihar. Gero "Tintura de Yodo" ta ximurtu pixkat baño ximurtzen tzian Udaberriyan, Neguan nahiz ta nik "Tintura de Yodo" eman, hayek eoten tzian berdin.

G. -Ta "inflamazioak" sendatzeko?.

M.L. -Ba, zerak, trapu beruak, guata pixkatekin. Haunditu iten zizainian aoa o haiñeko miña balinba zenekazun, guata jarri, trapo bat jarri, gero lazo haundi bat egin, ta.

R. -Len berua ta oain hotza.

M.L. -Generalian trapo beltzak ibiltzen genituen. Ustet etxe guztiyetan bazala pañuelo beltx hori.

R. -Bai, besoak hausten tzuenian e ipintzeko. Bestela haundituta balinbazan "Belladona". Pomada bat tzan. Tubo bat beltxa.

M.L. -Usain txarra zuen, neska.

G. -Ze larru gaixotasunak ezagutzen dituzue?.

R. -*Atza* esaten tzitzayona, *Atza* larru miña izaten tzan hori.

G. -Zer zen hori?.

R. -"Sarna" bezela.

M.L. -Nik pasa nuen hori, gorputz guziya iruki nun nik e?.

G. -Norbait burusoila gelditzen zenean, zer uste zen horren zergatiaz?.

R. -Inteligentzi geyegi tzuelako, len hala esaten tzuten. "Calbo" zianak, inteligentia ziala.

G. -Ba zegoen zerbait horretarako?.

R. -Orduan ez neska.

M.L. -"Trasplantes"(parrez).

G. -Ilea kizkurtzeko ba zegoen zerbait?.

R. -Permanente.

G. -"Panadizoek" beste izenik ba zuten?.

R. -Bai, *Bereskuak*.

G. -Eta nola sendatzen ziren?.

R. -Hori, tipula jarri txapa gañean oliyo pixkatekin, eta biguntzen tzanian tipula, oliyo bero, bero hua, jarri miña zeon tokian ta lotu, eta, "canela en rama".

M.L. -Eta botikatikan juten balinba ziñan "Tiraquillón", zan gauza bat, kandela balitzake bezela, hura eman ta. Zenbat sufritu deten nik biatza honekin. Txapa gañetik hartu ta... Hau Don Josék nai zitan moztu, biatza hau zeatikan ezin tzan sendatu, ezin tzan sendatu, eta esan tziyon amai azkenian moztu in beharko zala, ta amak esan tziyon ez, mostutzeko beti zeola denbora eta usteko beai beak aleiñak eingo zituela aber sendatzen tzuen, baita sendatu ere tipula ta oliyuakin, bañon, gorriak pasata e? Ze saltuak lurrian bero hura jarrita, Jesusj, baño sendatu in tzan.

G. -Ba zegoen zerbait oinetako izerdia kentzeko?.

R. -Orduan ez maitia, ez.

M.L. -Jaboyakin garbitu kalderian, ta lixto. Berriz, "ze usaya botatzen, bueno garbitzen anka hoyek e?", ta berriz e garbitu ta lixto.

G. -Jendeak zer pentsatzen zuen izerdiari buruz?.

R. -Langillei ateratzen tzitzayona.

G. -Konkorrari buruz zer dakizute?.

M.L. -Bueno, ezautu izan deu, zerakin, tirantiekin aitu, geyo ez okertzeko, tirantiekin ezautu ditugu hemen e? Baño, besteik etzan. Ba zera, tirantiak fuerte, fuerte, hola jarri ta.

G. -Eta herrian nola tratatzen ziren konkordunak, nola ikusita zeuden.

R. -Hemen ez deu ezagutu konkordunik.

G. -Ta goitizenak jartzen zieten?.

M.L. -"Konkax" ta.

R. -"Konkax" bai, batei esaten tzioten hemen "Konkax".

G. -Erreduren anpollak sendatzeko, zer egiten zen?.

R. -Ba, Negu partian, elurra ta oliyoa nastututa gorde botella batian, eta erretzen ziñanian eta anpollak ateratzen tzirenian, hua eman ta..., oso ona zen e?. Asko goxatzen zitun harrek.

M.L. -Gue etxean beiñ etzan faltatzen, gue amak, urtero, urtero, urtero iten tzun hori.

G. -Zeintzu ziran haur gaixotasunik ezagunenak?.

R. -Len esan ditugunak, *Txaranpiña*, *Txakur Estula*, *Kukutxa Estula* eta hoyek.

G. -"Urtikariari" buruz, zer dakizute?.

M.L. -Ba "urtikaria" askotan ateatzen tzan arrai berdia jaten tzanian nei beintzat, kalte iten tzian, ta nik iruki izandu det e?

R. -O bestela txorisua janta ere bai.

M.L. -Enbutiduak eta jaten tzirenean, baño nei.

G. -Lehen esan duzu "arrai berdea".

M.L. -Bai berdin esaten da arrai berdea edo arrai urdiña, gauza bera da.

G. -Beste izenik ba zuen "Urtikariak"?.

M.L. -Ez, guk e "Urtikaria" esaten geniyon.

G. -Erreuma sendatzeko zer zegoen?.

R. -"Petrikillo".

M.L. -Beştea, bañuak ta Amarretxetan, besteik ez.

G. -Zergatik hartzen zen "Lunbagoa"?

M.L. -Esfuertzuen bat hola...

R. -Postura txarren batian eon o gesto...

G. -Ta nola sendatzen zen "Lunbagoa"?.

M.L. -Gauza beruak eta, trapu beruak eta bayetak jarri, ta oyean eon ta.

G. -Ez zen ezer ematen?.

M.L. -Bai "Lilimento Esloan", "de bigotes", hori bai, hori bakarrik zan.

G. -"Rakitismoak" beste izenik ba al zuen?.

R. -Ez.

G. -Nola sendatzen zen?.

R. -Jaten.

G. -"Gangrenarentzat" zer zegoen?.

R. -Denbora zaharran pasatzen ez balinba zenun, moztu.

M.L. -Oaiñ alegin geyo iten da, ordun nola etzan, etzan, ezere aleiñik iteko, ba gixajo gaxuak, harrapatzen tzuen hura, pixkaka, pixkaka.

G. -Eta ez zegoen belarrik horretarako?.

R. -"Pasmo Belarra" enplastuak jartzen tzituzten.

G. -Beste izenik ba zuen?.

M.L. -Ez, guk e "Kangrena" esaten degu.

G. -Ze begietako miñak ezagutzen ziren garai hartan?

M.L. -"Pintxingorrak" eta, "orzuelos", guk "Pintxingorrak".

G. -Besterik ez?.

M.L. -Ez.

R. -Nere semeak kontatze u bea eskolan tzebillenian jun tzala neska bat egun batian pintxingorra haundi batekiñ, hola, ta begiyak eziñ iriki, ta galdetu ziotela "¿Oi begoña qué te ha pasado en el ojo?. Ta besteak: Que tengo una pintxingorra".

M.L. -Nola euskeraz gutxi izango zan zekitenik garai hartan ta.

G. -Zergatik ateratzen ziren?.

R. -Gezurrak esateatik. (parrez)

M.L. -Hala esaten tzuten.

G. -Eta nola sendatzen ziren?.

R. -Nola etorri, hala juan. O bestela iten tzuten, arratzian giltza, etxe irekitzen tzan, atia irikitzeko giltza, leyuan utzi ta arratzian, gau guztiyan utzi leyuan ta hurrengo goizian hartu giltz hura eta begiyetan pasa.

G. -Zerbait sartzen zenean begi batean, ba zegoen zerbait ateratzeko?.

R. -Ateratzeko?.

M.L. -Paper bat hartu, zigarro papera generalian, leyo aurrea joan"Aber iriki ondo begiya" eta al balinba zenun zeorrek atea eta lixto.

G. -"Estrabismoa" ezagutzen zen?.

M.L. -Bai, baño "Estrabismo" horrekin, begi okerra betiko.

G. -Pertsona bat itsua gelditzen zenean, ez jaiotzetik baizik eta gero, nola esplikatzen zen hori? Zeintzu ziren zergatiak?

R. -Etzeon esplikaziyorik.

M.L. -Ez, ez, itxutu in da ta itxutua ta kito.

R. -Orduan igual izango zan "Desprendimiento de Retina".

M.L. -Nola etzan ezautzen, "itxutu da" ta akabo, betiko itxutu.

G. -Belarrien gaixotasunei buruz zer dakizute?.

M.L. -Leno botatzen tzan belarriko miña zanian, oliyua berotu pixkat, eta tanto batzu bota.

R. -Baño nondik datorren ez.

M.L. -Biar ba katarrua zanian e bai hoztu ta...

G. -Eta guruinen gaixotasunei buruz? Guruinak "glándulas" dira erderaz.

M.L. -Hola ateatzen tzienian *Asigulintxuak*, orduan Manuela Xumaiarrengana, nola haunditzeko zian ba *Gingillak*, "gingillak dirade zirt edo zart" egin ta...

G. -Zergatik ateratzen ziren "Paperak"?.

M.L. -"Paperak" esaten tzuten peakorrak tziala e?.

R. -Batzutan esaten tzan debillidadiagatik, debilla tzeolako pertsona. Beste batzutan berriz, hazi iñ behar tzuelako..

G. -Beno, lehen komentatu duzue zerbait baina, hezurrentzako, hezur bat puskatzen zenean, beti joaten zineten sendagilearengana?.

M.L. -Bai, bai, bai, eta petrikilloengana.

G. -Haginetako minarentzako zer zegoen?.

R. -Hagiñeko miñantzako, aspirinak.

M.L. -Baiño, ixo, ixo, ixo, "Toques de Eter" o ze batatzen tzan, "Eter". Palillo batian guata pixkat jarri likido bat eta erretzen zizkitzun mingañak, dena barrendik.

G. -Esaten den bezelaxe, "Peor el remedio que la enfermedad".

M.L. -Hala da bai.

G. -Nork kentzen zituen haginak?.

M.L. -Orduan bai e?. Atea bear tzienian, ezin bazan etxian atea...

G. -Etxean ateratzen zituzten?.

R. -Norbeak e?.

M.L. -Gue amak faltan zituen denak, beak ateriak. Egunero ibilli, ta ibilli, ta ibilli, ta askenian kanpoa.

G. -Eta haurrei hortzak kentzeko, ba zegoen zerbait?.

R. -Ez haurrei berayei erori iten tzeizkaten.

G. -Ba zegoen zerbait haur batek pixa ez egiteko ohean adibidez?.

R. -Ez.

M.L. -Esaten tzan "Iñori suakin e? arratzian igual pixa oyian".

R. -Ibilli gabe ere bai.

G. -Pertsona bat, mutua, gormutua edo totela zenean, zergatik pentsatzen zen halakoa zala?.

R. -Hala jayo zan ta akabo.

G. -Ez zen kontsideratzen gaixotasun baten ondorio bezela?.

M.L. -Etzan pentsatzen, hola atera da, ta hola.

R. -Etzan haztarrengatikan pentsatzen.

G. -Zauri bat egiten zenutenean, zer zegoen hori sendatzeko?.

M.L. -"Agua Oxijenada", garbitu lenbizi ta.

R. -Ta haundiya balinba zan azufria bota, ebakiya zeon tokiyan, azufria bota.

G. -Eta odol asko baldinba zerion?.

M.L. -Garbi, garbi, garbi, iñ, eta ebaki txikiya balinba zan babarruna erdi bat peatu. Eta hola haundi xamarra balinba zan azufria.

G. -Eta zerbait sartzen zenean larruan?.

M.L. -Alkola ta "agua oxijenada" besteik etzan.

G. -Eta txakur batek koxka egiten zuenean?.

M.L. -Ezta sendagillengana e. Nik dakan kozkazua, baserri batetik atea zan zakur bat eta zuzen, zuzen, zuzen, zuzen guegana ta klak¡ eta akabo, abuan marka hantxen pantorrillan. Ez tetanoik, ez parte eman, eta ez ezere, igual tzan amorratu izan banintzan zakurra bezela.

R. -Guri koxkaka hasiko zan orduan ta(parrez).

M.L. -Ta beiñ armiarma batek koxka in ninduen, lanean ari nintzen ta klak¡, ofizinan, oi¡, ta holako armiarma, jo nuen, akabatu nuen, baño euki nuen anka, hemendik honeaño, atzetik eta aurretik hola beltz, beltza, eta ez nitzan joan ezta medikuengana. Orduan ba zian...

G. -Eta ez zenuen ezer eman?.

M.L. -Ez, ez, ezerez, ezerez. Eta aldamenekoak "¿qué te ha pasado en la pantorrilla?", goitik beraiño, belz beltza.

G. -Eta suge baten kasuan?, ez zen ezer egiten?.

R. -Berdiña.

M.L. -Askotan mustua asko sarzen balinba zan ta akabo e?.

G. -Eta insekto baten kasuan?.

M.L. -Igual, igual, binagria ematen tzan.

G. -Orduan pozoiarentzako ez zegoen ezer?.

M.L. -Pasmobelarrak odola garbitzeko ta kito. Etzeon pomadik eta halakoik etzeon.

G. -Eta norbait itotzen zenean edo itotzeko zorian zegoenean, zer egiten zen?.

M.L. -Bizkarrian kolpeak eman aber urik botatzen tzun aotik eta ura botatzen balinba zuen, bueno, ondo, ya beiñ ura bota ezkero ondo, baña, jo ta, jo ta, jo ta, jo ta, urik ez bazun botatzen, akabo.

G. -Nola jakiten zen pertsona bat hilda zegoela?.

M.L. -Pultsua hartuta, pultsua hartu ta, ba daka o ez daka o.

R. -Biar ba salbatu leiskenak asko e? jakiñ izan bazan nola iñ ta.

M.L. -Geo ixpillua jarrita.

R. -Duda balinba dakazu hil dan o ez dan ba...

M.L. -Arnasia botatzen badizu lañoa ateako zaizu. Zeak e kanayuak e nolakoa botatze u.

G. -Zer pentsatzen zen pertsona bat hiltzen zenean, horrela, bat batean. Ezer ez zuena eta bat batean hiltzen zena.

R. -"De repente" hil da.

M.L. -Eta gero esaten tzan askotan, bai oaiñ tensiyoak eta begiratzen dia, baño sasoi hartan e tzan begiratzen ta, odol askokuak igual ta, burura jo ta, seko, hola gelditzen zien.

R. -Ustez osasuntsu zeuden jendia gañea askotan gertatzen tzan hori e?.

M.L. -Gue aitonen aita, hura ere aurkitu zuten hilla, "Inoxente egunian", eta hua ere oyeratu zala ondo eta hurrengo egunian hilla aurkitu zuten, baño, besteik gabe.

G. -Norbait pozointzen zenian, zer egiten zen?.

R. -Esnia ematen zizayoten.

M.L. -Beti esaten tzan "esnia contra veneno".

G. -Eta tximistetatik babesteko, egiten zen zerbait?.

R. -Kandela pistu.

M.L. -Kandela pistu eta atietan...

R. -Bueno, hori baserrietan jartzen tzituzten, "erramo bedeinkatua" atian jartzen tzan.

M.L. -Erramo egunian bedeinkatzen tzan zera, atietan jarri, eta Santa Barbarai egin.

R. -Santa Barbarai errezatu. Ta kandela pistu.

G. -Eta tximista batek pertsona bat zauritzen zuenean?.

M.L-Ba be kaus gue aitona hortan e itsua gelditu zan.

R. -Momentuz e?, geo etorri zizaion.

M.L. -Ari omen tzan arrantzako gorañak, ez takit ezautu dituzun zuk, nola txipiroyak harrapatzeko izaten dian holako orratzak dituztenak, atzaparrak bezela, ari zan ariyakin forratu, eta hemen zeon ba balkoyan aurrian, ta amonak esaten tziola: "Iñaxio sartu zaitez zeatikan tximistak nabarmen ari ditu ta", "ba, hauek baño haundiyaguak itsasoan ikusten itut", eta zer dan kontuata eman tziyon, eta momentuan itsutu zan, eta ibilli zala etxean...

R. -Erotuta bezela e?.

M.L. -Karraxika erotuta, eta ezerez egin gabe, berriz ostean bista etorri zizayon. Gue amunak esaten tzun holaxe gelditu zala. Amunak esan sartzeko eta buf¡, itsua gelditu. Baño esaten tzun etxean ibilli zala gizajua.

R. -Ero bat iña e?, ero bat iña. Baño ez omen tzan gero gelditu leyo aldamenian geyo.

G. -Zuek nola esaten duzue "insolación".

R eta M. L. -*Iruskiya Pasia*.

G. -Eta horren kontra, hori erasotzeko, zer egiten zen?.

M.L-Ez takit ba, aspirina buruko miñentzako. Beti aspirina, zeatikan beste gauzik etzan eta, etzan beste remedio ta gañea sendagillengana etzan iñor juaten.

R. -Eta buruko miña balinba zekarren, binagria ta ura nastutu ta kopetian jarri ta hura iruki ta kito.

G. -Pertsona bat oso grabe zegoenean, nola jakiten zen sendatzeko posibilitateak zituen ala ez.

M.L. -Bueno, holako zeretan, sendagilleak esaten tzun. Don Enrique eta Don José hemengo sendagilleak hoyek zian ta, hoyek esaten tzuten gutxi gora bera ba "hau du o hura du".

G. -Lodia egotea kontsideratzen zen osasunaren sintoma?.

M.L. -Nik uste baietz.

R. -Emakume ederrak balinba zian hayek eta nayo zituzten gizonek.

M.L-Bai, bai, bai, etzan orduan "gizenik nao ta", etzan ezer e egiten.

R. -Argala balinba zeon bat Jesusj"gosiak hilla zion hori".

M.L. -Osasunezko eta emakume ederra. Eta zenbat eta azal zuriyo, eta hobio. Askok "Polvos de Rosa" erosten tzitzuten, ez takit nun, eta aurpegiyan eman ta, zuriyo ta ze iteko azala. Besteik etzan kremik, "Polvos de Rosa".

G. -Eta flakatzeko ba zegoen zerbait?.

R. -Ez flakatzeko ta ez gizentzeko. Bakoitza zan zan bezelakua ta kitto.

M.L. -Jayotzen ba ziñan flaka, ba flaka, gizena ba gizena.

G. -Zuek ezagutzen duzue esaerarik gaixotasuna edo eritasunarekin erlazionatuta dagoena?. Errefrau bat edo esaera zahar bat edo...

R. -Oaiñ igual etzaizu burura etortzen baño..., ba leike zeozer eunen batian aitzia guk e.

M.L. -Len esaten tzana, erderaz gañea, "mira, el que mal anda, mal acaba". Ba dakizu zer gertatzen tzan, pertsona batek zerbait gauza on bat iten tzun eta etzitzayon haintzakot hartzen, ta gero hildakuan, "oso ona, oso piskorra. Eta hau in biar you, omenaldi bat in biar you", eta esaten tzan orduan "después de burro muerto cebada al rabo".

G. -Eta euskeraz zerbait?.

M.L. -Errefranik euskeraz, gutxi, gutxi. Birauak e, erderaz dia, Jangoikoen kontrakuak ateratakuak dia...

R. -Danak erderaz. Euskeraz ez ta, ez ta hitz txar bat, Jangoikoen kontra ibiltzen dienak, oaiñ ibiltze an aña, danak erderaz.

M.L. -Naiz ta euskaldunak izan, hayek e esan bihar ba zuten biraua, esango zuten erderaz, euskeraz ez dalako.

G. -Bueno ba, bukatu dugu. Nahiko aspertu zaituztet eta banoa.

M.L. -Ez, ez, neska, beste bat daukazunian etorri.

R. -Ta al balinba degu ba...

G. -Beno, beno, inork ez daki. Mil esker bioi.

Inkesta honekin bukatuz gero, Antxoni Alkortari egindakoa ipiniko dut. Hau interesantea izan daiteke bertan azaltzen bait da, Pasai San Pedron oso ezaguna izan zen pertsonai bat, Errenderiko Enplasterua, alegia.

G. -A ver tía te voy a hacer una serie de preguntas a cerca de ese emplastero que venía de Renteria, tú le conociste ¿no?.

A. -¡No le voy a conocer¡, ese venía muchas veces a casa.

G. -Pero, quién era?.

A. -El era de Renteria pero venía mucho a San Pedro, sobre todo cuando había infecciones se le llamaba a él; mira ese le curó a la amuna.

G. -Así que sólo curaba infecciones.

A. -Sí, aquél era "inchante". Un día en Navidades que alguien de casa se puso enfermo, le llamamos a él y vino a las doce de la noche, en pleno invierno, nevando como estaba y con playeras blancas. Tu madre cuando le vió entrar no pudo aguantar la risa..., mira, ¿tú sabes qué pinta tenía?. Desde entonces tu madre le puso el nombre de "Veranillo San Martin".

G. -¿Le llamaba mucha gente del pueblo?.

A. -Sí, la gente se fiaba mucho de él porque curaba muy bien. Sobre todo cuando después del parto se cogía alguna infección, siempre venía.

G. -¿Con qué hacia los emplastos?.

A. -Con hierbas, con unas pomadas que él hacía con *pasmobelarra* y otras hierbas. También traía piedras que él cogería de su huerta o.., no sé.

G. -Tía, cuenta un poco lo de la amuna.

A. -Pues la amuna entonces tenía huerta y de andar allí, tenia las manos abiertas. Entonces un día se le ocurrió teñir un jersey y se le metió el tinte en los "tartes" de la mano. De allí a los días se le empezó a hinchar la mano, fué al médico y le dijo que no había solución, que tenía una infección muy grande, y que había que cortar la mano. La amuna entonces era joven y le dijo que ni hablar, que ella antes de cortar la mano haría lo que sea. Asi le llamó al emplastero y vino enseguida. Aquél estuvo viniendo mucho tiempo. El traía una piedra y nos hacía poner en el fuego un puchero grande con agua. Cuando el agua estaba hirviendo metía allí la piedra y se ponía roja, roja, entonces con un trapo grande, le hacía meter la mano allí. Después le ponía en toda la mano un emplasto que traía él preparado y le dejaba con aquello. Asi le hizo muchos días, hasta que le curó.

G. -¿Sabes cómo se llamaba?.

A. -No, el nombre no sé, era de Renteria...

G. -Muy bien tía, nada más.